

# Ohiko galderak

## Nola antolatuko dira taldeak?

Parte-hartzaileen adina eta ingeles-maila oinarri hartuta osatuko dira taldeak. Kontuan izango da, halaber, lagunekin batera egoteko aukera, posible bada.

## Noiz sartuko dira kanpamentura haurrak?

Igande arratsaldean. Une horretan, Cool Offeko lantaldea haurrei etxean ongietorria egiteko prest egongo da. Kanpamentuak hasi baino lehen, iristeko moduari eta sartu eta irteteko ordutegiei buruzko jarraibideak jasoko dituzte familiek.

## Ingelesaz gain, beste hizkuntzarik hitz egingo da?

Gure monitoreak ingelesez bakarrik mintzatuko dira; horrela, murgiltze-giroa biziko dute hurrek. Hala ere, erreferentziako pertsona batek, zuzendariak, gaztelaniaz, katalanez edo euskaraz egiten du, eta bitartekari-lanak egin ditzake hala behar denean.

## Parte-hartzaile bat gaixotzen bada edo parte-hartzaile batek arreta medikoa behar badu, zein da prozedura?

Medikuarengana eramango dugu parte-hartzailea, eta haren familiarekin harremanetan jarriko gara, egoeraren berri emateko.

## Haurra Cool Offera apuntatzen badugu baina joaterik ez badu azkenean, zer gertatzen da?

Parte-hartzaile batek kanpamentua hasi eta gutxienez hilabete lehenago ezeztatzen badu edo ezinbesteko kasu bat bada, ordaindutako zenbatekoaren % 50 itzuliko da.

